

## Diploma banaketa Bidasoako Campusean

2009/06/02

2009ko maiatzaren 29an, Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultateak titulu akademikoak eman zizkien 44 graduaturi.

Graduatuenak, 23 emakume eta 21 gizon dira; 32 Enpresa Zientzietako Diplomaturako hirugarren promoziokoak dira eta 12 Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Lizentziaturako lehen promoziokoak (EAZL).

Diplomak emateko ekitaldia 18:00etan hasi zen, FICOBAn (Gipuzkoako erakustazoka, Iparraldeko etorbidea 43, Irun)

Diplomak emateko ekitaldi akademikoan, honako hauek izango ziren: Lander Beloki, Enpresa Zientzien Fakultateko dekanoa; Begoña Ugarte, Mondragon Unibertsitateko zuzendari akademikoa; Larraitz Sein, Bidasoako (Irun) Campuseko koordinatzailea; eta Patxi Perez, Bebeventos Comunicación Creativa enpresakoa, "Antzerkia eta Enpresa" hitzaldia emango zuena. Ekitaldia losu Zabalak, Mondragon Unibertsitateko errektoreak, itxi zuen.



### Enpresa Zientzietako Diplomatura

Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzietako Diplomatura-ikasketek enpresa-kudeaketaren osoko ikuspegia ematen dute. Horrekin batera, mugetako enpresa-inguruetan garrantzitsuak diren jardueren espezializazioak dituzte: "Enpresa Logistika eta Garraioa" eta "Nazioarteko Merkataritza".

Ilido horretan, Enpresa Zientzietako unibertsitate-diplomadunek honako jarduera hauek lantzen dituzte lan-garapenaren eremuan: nazioarteko bezeroen eta hornitzaileen kudeaketa, hornikuntzaren kudeaketa eta outsourcinga, garraioaren kudeaketa, negoziazioa bezeroekin eta hornitzaileekin, biltegien kudeaketa, produkzioaren kudeaketa, finantzen kudeaketa....

Ostiraleko ekitaldian, diplomaturako hirugarren promozioko ikasleei emango zitzaizkien tituluak. Ikasketa-planak hiru ikasturte akademiko ditu, eta ikasgaiak arlo hauetakoak dira: Matematika Aplikatua, Finantzak eta Fiskalitatea, Ekonomia, Enpresa Antolakuntza eta Marketina eta Zuzenbidea.

### Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Lizentziatura.

Bestalde, Mondragon Unibertsitatearen Irungo Campuseko Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako lehenengo 12 lizentziatuek ere diploma jaso zuten ostiral arratsaldean.

Lizentziaturaren ezaugarri nagusia bere ibilbidea da, hain zuzen ere, Enpresa Proiektuen Garapenean, Estatuan, espezialitate aitzindaria izan delako. Horrelako tituluarekin, Mondragon Unibertsitatearen helburua argia da: ikasleen artean ekintzailetasuna sustatzea eta titulazioaren bitartez, ahalmena eta gaitasunak ematea enpresa-proiektuak garatzeko (bai produktuak, bai negozio-lineak) edo, baita, beraien enpresa sortzeko. Beraz, tituluaren helburua ikasleek ekintzaile izaten ikastea da..

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako lizentziaturak eta Enpresa Proiektuen Garapenak hiru fase oso desberdin ditu: lehenengoa, balidazio-fasea da, ekintzaile-kontzeptua eta enpresa-kultura landu eta

sustatzeko. Sei hilabetekoa da, irailetik otsailera. Bigarren fasea Enpresa Proiektuaren Garapenerako da eta urtebete ingurukoa da. Fase horretan, enpresa-proiektua gauzatu egiten da, produktua edo zerbitzua garatu egiten baita. Azkenik, hirugarren fasea dago, merkaturatze-fasea, jarduera berria abian jartzeko, otsailetik eta uztaileira.